




Erregistratutako langabezia % 3,5 jaitsi zen abenduan

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko abendua. Milak




Iturria: SEPE.

Langabeziak behera egiten jarraitu zuen urteko azken hilabetea, **111.000 langabe baino apur bat gutxiagorekin**. 2008. urteaz geroztik abenduan lortutako mailarik txikiena da, beheranzko joera berretsiz.

Egindako kontratuak % 22,4 murriztu ziren

EAEn eginiko kontratuak
Urte bakoitzeko abendua. Milak




Iturria: SEPE.

Kontratazioak % 22,4 egin zuen behera abenduan, aurreko urteko hil beraren aldean, **58.000 kontratu erregistratu baitziren**. Hala ere, kontratu mugagabeek goranzko joerarekin jarraitu zuten, eta guztizkoaren % 21 gairitu zuten.



Afiliazioak marka historikoak lortu ditu

Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko abendua. Milak




Iturria: Gizarte Segurantzak.

Euskadi milioi bat langileko muga gainditzeko zorian geratu zen abenduan. Inoiz ez da hainbeste pertsona egon lanean Euskadin. Aurreko urteko hil beraren aldean hazkunde erlatiboa % 1,4ra apaldu bazen ere, urteko batez besteko aldakuntza tasa % 2,1ean kokatu zen.

Euroguneko PMI konposatua % 49,3 izan zen

Euroguneko PMI konposatua Indizea



Iturria: Markit.

Abenduko euro eremuko PMI konposatua puntu eta erdi igo zen aurreko hilaren aldean. Datu hori uztailetik izan den altuena da, eta ekonomia hedapen eremura iristetik gertu egotea ahalbidetzen du.